

TOKIKOM

2018ko uztaila | 183. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria

Jaietan!





euskara praktikoa

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia

Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1-EGA

**Talde txikiak eta giro ona. Eskarmentu
handiko irakasleak**

Herrian bertan ikasteko aukera

Autoikaskuntza

Online-ikastaroak

Matrikula zabalik, irailaren 27ra arte

Gorbea kalea 5, beheka, Derio

94 454 39 67 / 607 59 87 94

txepetxa@aek.eus



DIRU-LAGUNTZAK

HABE
Maila egiaztatuta

BIZKAIKO ALDUNDIA:
Euskara-eskura txartela

TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

LARRABETZUKO
UDALA

-  **4 Eritxiak**
-  **5 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Irudietan... Diego Palomino, fruten sorgintzailea**
-  **12 Gurean izan da... Iñaki Anasagasti, EAJ**
-  **14 Jatsu Guaresti, txakurren hezitzailea**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Larrabetzuko jaiak**
-  **22 Lezamako jaiak**
-  **26 Auzoetako jaiak**
-  **28 Lagatzu Eguna**
-  **30 BBK Music Legends jaialdia**
-  **32 Berbalagun**
-  **34 Gure musika... Kartzarot**
-  **35 Aikorrizketa... Oraingo turistak...**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



12 Iñaki Anasagasti, EAJ alderdiko politikari ohia



28 Lagatzu Eguna



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Toti Martínez de Lezea, Maitane Apodaka, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabetti, Itallen bertso eskola, Roberto Gómez "Txiki", Maied Urrutia Parra, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Gaizka Peñafiel

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Indarkeria

Mendealdean, emakumezkoen egoera aldatu da arima zuten edo ez eztabaidatzen zen garaietatik; hitz egitea, ikastea edo, sinpleki, etxetik bakarrik ateratzea debekatzen zieten garaietatik. Garai horietan, lanak eta haurdunaldiak ahituta ailegatzen ziren zahartzarora eta euren izenak betiko ahazten ziren. Gaur egun, emakumezkoak eta gizonezkoak berdinak dira lege aurrean eta unibertsitatean, lan munduan eta politikan badaude emakumezkoak. Hala ere, oraindik hari-mutur solte asko geratzen dira hortik, hala nola soldaten parekotasuna egindako lan berdinatik, edo enpresetako eta alderdi politikoetako zuzendaritza-karguetan egon ahal izatea; baina bizimodua ateratzea ez da erabakiak hartu euren gorputz eta bizitzari buruz. Hala ere, mendeetako menderatzea eta sumisioa ez dira kolpe batez desagertzen eta froga eguneroko gertaera tamalgarriak dira: tratatu txar psikologikoak edota fisikoak jasotzen dituzten emaku-

meak, kolpekatzen, erasotzen, bortxatzen, iraintzen, gutxiesten eta hiltzen dituzten emakumeak, neskatoak ere bai. Hau hainbeste aldiz gertatzen da, ezen esan baitaiteke gure gizartea, hain aurreratua dena, egoerara ohitu egin dela.

Emakumezkoak euren giza harremanengatik, erakargarritasunengatik eta jantzen duten arropengatik azaltzen dira komunikabideetan, eta oso gutxitan euren lorpen artistiko, zientifiko edo laboralengatik. Irargarkietan, neska ederrak dira protagonistak; telebistan, nekez ikusten da aurkezle moduan nagusia, itsusia edo lodia den emakumeren bat, nahiz eta gizonezkoen kasuan kontrako gertatu; filmen protagonistak ia beti dira gazteak eta ederrak, eta batzuetan, azkarrak ere bai. Benetako bizitza beste gauza bat da. Jai-egunak ez duen etxeko andrearena da; etxera soldata ekartzen duen eta etxeko gauzak egin behar dituen emakumearena; gizonezkoena baino handiagoa den emakumezkoen lan-gabeziarena; modu bortitzean esnatzen



TOTI MARTINEZ DE LEZEA
Idazlea

den neska-lagun ilusionatuarena; aurpegi txarrak, baita zartadak ere, jasaten dituen amarena; bakarrik dagoen eta baliabiderik ez duen alargunarena.

Emakumeen kontrako indarkeriak ez du gizarte-klasez ulertzen, ez kolorez edo ideia politikoez eta erlijiozkoen. Gure gizartearen esparru guztietan gertatzen da, adin-tarte guztietan eta edozein lekutan. Hura salatzea ez da ariketa "feminista" bat, batzuk esaten tematzen diren moduan, baizik eta guztioi dagokigun betebeharra, gizonezkoen zein emakumezkoen.

Eguzkia, eguraldi ona, beroa, hondartzak... eta udako oporrak. Plan paregabea dirudi pertsona askorentzat; baina, gaurkoan, eguzki-izpi eta olatuen doinuaren atzean ezkutatzen den errealitateari buruz hitz egingo dizuet. Zenbait pertsona, batez ere emakumezkoak, larritu egiten dira aurreko urteko bikinia berriz ere jantzi behar dutenean.

Gorputz idealek nolakoak izan behar duten esaten diguten mezuak jasotzen ditugu egunero, eta, ia konturatu gabe, exijentzia horiek normalizatzen ditugu. Eta orduan hasten da gure abentura: dieta magikoak,

Gorputzak



MAITANE APODACA
Ikaslea

gimnasio-orduak, konparazioak, gure buruari kritika amaigabeak, etab.

Exijentzia horiek guztiak ziurgabetasuna eta konfiantzarik eza sortzen dute emakumeengan. Baina, egia esan, egoera horretatik onuraren bat ateratzen duen bakarra gaur egungo sistema kontsumista da. Izan ere, gaur bertan emakume guztiok geure gorputza maitatzea erabakiko bagenu, zenbat enpresa joango lirarteke pikutara?

Uda honetan hondartzarako gorputza nahi izanez gero, badakizu zer egin: estimatu daukazun gorputza, eta hondartzara joan!



Rubén Glerak Pedals de Foc Non Stop MTB ultramaratoia irabazi zuen ekainaren 30ean, Vielhan (Lleida). Glera 81. postuan geratu zen sailkapen nagusian, baina irabazi egin zuen bere kategorian –Master 50 B, hau da, 55 urtetik 60 urtera bitarteko mailan–. Ondorioz, zamudioztarra Euro-pako txapelduna da. “Iaz ere hartu nuen parte lasterketan, baina patxadaz ibili nintzen. Aurten, aldiz, lehenengoan artean geratzea nuen helburu eta hori lortu dut. Iaz baino ordubete lehenago heldu naiz helmugara. Oso pozik nago ni neure buruaren kontra sartzen naizelako lehian”, esan digu txirrindulari zamudioztarrak.

Pedals de Foc Non Stop Europako ultramaratoirik gogorrena da. Ibilbideak 213 kilometroko luzera du eta desnibela 6.200 metrokoa da. Txirrindulariek 5:00etan ematen diote hasiera lasterketari eta aurtengo edizioan irabazleak 10 ordu eman zituen ibilbide osoa egiteko. Bere aldetik, Rubének 12 ordu baino gehiago eman zituen bizikletaren gainean, 12:44:57, hain zuzen ere.

Pedals de Foc Non Stop lasterketa 2006an egin zen lehenengo aldiz eta ordutik gero eta lagun gehiagok hartzen dute parte. Aurten, esate baterako, 11 herrialde ezberdinetatik etorritako 1.000 txirrindulari inguru aritu dira lasterketan. "Batzuk lehian sartzera joaten dira hara, eta beste batzuk ondo pasatzera. Nire kategorian 60 lagunek hartu dugu parte. Ilbidea alde batera utzita, lasterketa oso gogorra da, erreferentziarik ez duzulako, ez dakizu beste txirrindulariak zelan dabil-

Rubén Glera zamudioztarra, Europako txapelduna



tzan. Gainera, lasterketa oso luzea da eta ez dakizu zer gertatuko den, gorputzak erantzunago dizun...”.

Rubén Glerak bitxitegia dauka Zamudion, baina aisialdia bizikletaz ibiltzen ematea gustatzen zaio. "Urtean 300 egun ibiltzen naiz bizikleta gainean. Izugarri gustatzen zait, erlaxatzen naudelako. Emaztea kokoteraino dago, baina horrela jarraituko dut ahal dudan arte". Hurrengo saioa Lezaman egingo du aste bi barru.



Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

aldeko  **ne**
horts klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribte 7, beheak
48180 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate gutxiak zentzu bakar baten
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

**NEURTU
ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA**

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

**BETE ZURE ▶
AUTO-DIAGNOSTIKOA**



bai
euskarari

baieuskarari.eus
 /baieuskarariziurtagiria
 @baieuskarari

Ziurtagiriaren
Elkarteak

Lan eta bizi euskaraz

ADARVE KAFETEGIA
— Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

astikenemoto
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Gerrako irudiak, Sondikan

Irailaren 18tik urriaren 7ra, "¡Nunca más! Imágenes de guerra 1936-1939" erakusketa ikusgai egongo da Sondikako Kultura Aretoa In, Sabino Arana Fundazioaren eskutik. Erakusketa 18:00etatik 21:00etara bisitatu ahalko da astegunetan; 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, zapatuetan; eta 12:00etatik 14:00etara, domeketan. Erakusketari lotuta hitzaldi bi eskainiko dira. Lehena, "La recuperación de la memoria histórica", Aranzadi Zientzia Elkartearen adituek eskainiko dute, eta irailaren 26an izango da, 19:00etan, Kultur Etxean. Bigarrena, "La guerra civil en Euskadi", Sabino Arana Fundazioko adituek emango dute urriaren 3an, 19:00etan, Kultur Etxean hori ere.

Trafikoa berrantolatuko da San Joan auzoan, Sondikan

Lanak abuztuan egingo dira oporraldia eta auto gutxiago daudela aprobetxatuz. Trafikoa Errementari eta Goiri Erdikoa kaleetan berrantolatuko da, eta 28 aparkaleku gehiago atonduko dira. Guztira 285 aparkaleku egongo dira. "Bigarren ilaran aparkatzea saihestuko da eta, ondorioz, segurtasun handiagoa egongo da eta non aparkatu topatzea errazagoa izango da", esan du Xabier Zubiaur alkateak. Trafikoa Goiri erdikoa kalearen eta Txorierri etorbidearen arteko loturan ere berrantolatuko da. Hala, eta leku horretan seguruago ibili ahal izateko, Txorierri etorbideetik datozen autoek edukiko dute lehentasuna. Era berean, seinaleak, aparkalekuak, pasabideak eta abarrekoak margotuko dituzte auzoko kaleetan. "Beste urrats bat da auzoa hobetzeko", esan du Zubiaurrek. "Sabino Arana kalearen irisgarritasuna hobetu genuen, eta LED argiak ipini ziren auzoaren argitasuna ere hobetzeko".



Beste Birak arrakasta handia lortu du bere lehenengo urtean

Beste Bira Loiu atletismo kluba joan den urteko udazkenean sortu zen, Txorierriko atletei lehian aritzeko eta kirolaz gozatzeko aukera emateko. Klubak arrakasta bikoitza lortu du bere lehenengo urtean: alde batetik, kategoria guztietan kirolari-kopurua handitu da eta gaur egun 50 lagun daude klubean; eta bestetik, parte hartu duten probetan oso emaitza onak lortu dituzte. Klubeko kamiseta bost urteko umeek zein betaranoek erabili dute probetan. Baita gainerako kategorietako atletek ere.

Klubeko atletak Bizkaiko eta Euskadiko txapelketa guztietan ibili dira lehian, kanpoko pista zein pista estalian. Gainera, Espainiako txapelketan ere izan dira betaranoen eta 16 urtetik beherako kategorietan, eta pista estaliko Europako txapelketan ere ibili dira. Era berean, Burgoen, Kantabriar, Nafarroan, Ávilan eta Bartzelonan egindako probetan ere hartu dute parte.

Lorpenei dagokionez, hiru atleta Euskadiko txapeldunak izan dira. Maitane Ca-

nok 300 metroko lasterketa irabazi zuen 16 urtetik beherako kategorian, eta gauripenak Espainiako txapelketara eraman zuen. Radoaun El Khialik urrea eraman zuen 1.500 metroko lasterketan eta gazte kategorian, eta Javier Allende betaranoak irabazi zuen 1.500 metroko txapelketa pista estalian zein kanpoko pistan. Gainera, Cano Bizkaiko txapelduna izan da 300 metroko lasterketan, eta Radouan, Bizkaiko txapelduna 2.000 metroko hesi-lasterketan. Ibrahim Aghsainik urrea eskuratu zuen 800 metroko lasterketan, junior kategorian, eta Leire Barciak, zilarra 600 metroko lasterketan eta kadete kategorian.

"Podiumean egoteak Beste Bira Loiu ezagun egin du. Baina inportanteena da inguruko gazteek betiko kiroleratik aparte beste alternatiba bat eduki dutelako. Beraz, hurrengo denboraldiari dagokionez, Larrandon zein Derion entrenatzen jarraituko dugu, eta nahi duten guztia hara hurbildu ahalko da". Informazio gehiagorako: lenai123@yahoo.es eta bestebiraloiu@gmail.com.



Larrabetzu eta Gamiz-Fikaren arteko errepidea konpontzeko lanek arazoak ekarri dizkie bertako bizilagunei

Urtarrilean eta otsailean eurite handiak egon ziren Bizkaian eta horien ondorioz, otsailaren 13an, lur-jausi bat egon zen BI-3102 errepidean, Larrabetzu eta Gamiz-Fikaren artean. Bizkaiko Foru Aldundiak konpontze lanei ekin zien eta bideak hilabete batzuk eman ditu itxita, harik eta ekainaren 18an trafikorako berrirori zabaltu den arte. Horren haritik, auzokide batzuk kexatu egin dira, lanek euren lurretan eragina izan dutelako. "Urkulu basoko sarbidea, mendi bidea, moztu egin dute, bertan hiru metroko harri-lubeta egin dutelako. Beraz, ezin gara gure lurretara sartu", esan digu Juan Antonio Zorrozueta larrabetzuarrak.

"Hamar lagun baino gehiago gabiltza kexatzen, baina lanek eragina izan dute jabe gehiagoren lurretan. Hasiera batean, gure arazoaren berri Iñigo Gaztelu Larra-

betzuko alkateari eman genion. Berak Aldundira jo zuen, baina ez zioten erantzun argirik eman. Ostean, azalpenak eskatu genizkion Celia Rodríguezi, Aldundiko lanen arduradunari, eta horrek esan zigun lehentasuna errepidea irekitzea zela, eta ez zutela konponketa gehiago egiteko aurrekonturik. Azkenik, gutuna bidali diogu Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari, eta berak esan digu Aldundiak bidea konpontzeko ardurarik ez duela. Beraz, nik erantzun diot eta galdetu diot zergatik beste auzokide batzuei konpondu dieten bidea eta guri, ez, aldiz. Ematen du bigarren mailako herritarrak garela".

AIKOR! aldizkariak harremanetan jarri da Aldundiarekin, baina uztailako alea itxi orduko ez dugu erantzunik jaso.

Herritarrek 8,36 bat eman diote Loiuri

Bertako Udalak ezagutzera eman ditu herritarrei egin zaien azken inkestaren emaitzak. Inkestak udal kudeaketa hobetzea du helburu, eta ausaz aukeratutako 18 urtetik gorako 300 loiuztarri egin diete telefonoz. Inkestaei azken hiru urteotan egindako lanari buruz galdetu zaie. Inkesten % 6 euskaraz egin dira; eta gainerakoak, gaztelaniaz.

Loiuztarrek 8,36ko nota eman diote herriari eta % 88k adierazi dute oso pozik daudela bertan bizi izateaz. Bestetik, eta hobetu beharreko zerbitzuei lotuta, inkestatuen % 42ren ustez, garraio publikoak Loiuko ahulgunerik handiena izaten jarraitzen du, esparru horretan hobekuntzak egon diren arren. Era berean, inkestatuen % 3k uste dute argiteria publikoa hobetu egin behar dela; % 2,3k, herrian denarik ez egotea; % 1,7k herrigunetik pasatzen den trafikoa; % 1,7k, eskola publikorik ez egotea; % 1,7k aire-portuak sortzen duen zarata; % 1,3k, garbiketa; eta % 1,3k, parke estalirik ez egotea. Beren aldetik, % 34k uste du Loiun ez dagoela inongo arazorik.

Udalak martxan ipiniko dituen proiektuei dagokienez, Haritzondón gazteentzako etxebizitzak egiteko plan partzialak 8,88ko nota jaso du; gimnasio bat atontzeak, 8,15; gazteentzako musika lokalak, 7,5; eta Larrondón belar artifizialeko zelaia ipintzeak, 7. Urte hauetan aurrera eraman diren proiektuei lotuta, Landatxuetako bus-markesinak 8,51ko nota ateratu du; padel pistak estaltzeak, 8,48; Zamarripako bidegorriak eta espaloiak, 8,09; trafikoa arintzeko neurriak, 6,51; Loiuko EHU autobus-zerbitzuak, 8,72; Larrondoko espaloiak, 8,65; Iberreko bus-geltokiak, 8,6; jolas-parkeak, 8,59; eta aterpe berriak, 8,55. Azkenik, inkestatuen % 93 Udalak aisialdiari eta kirolari lotutako ekintzak antolatzen jarraitzearen alde azaldu da.




- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak
BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55


**ELORRIETA
INSTALACIONES**
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

**MARMOLGINTZA
GOYO**
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAR HILERRIK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

Gazte Eguna

Hori Bai Larrabetzuko gazte-txekoek uztailaren 28rako antolatutako dute aurten Gazte Eguna. Aurreko urteetako moduan, egitarau oparoa egongo da egun osoan. Holan, goizeko 12etan gymkana eta eskalada txapelketa egongo dira, eta 13:30ean



trikipoteoa. Bazkaldu ostean, Zarzaporilla musika taldeak saioa eskainiko du, eta Ttek elektrotarangak iluntzea girotuko du. Gaueko

22:00etan manifestazioa eta ekitaldia egingo dira. Kontzertuei dagokienez, aurten talde hauek igoko dira agertokira: Arkada Social, Glaukoma eta Koban. Horiez gainera, gau osoan dj-ak egongo dira gaztetxean: Little Martin, Selektah, Dabu Selektah, Elepunto eta Dj Kaiku.

“Kolesterolaren ibilbideak”

Bizkaiko Foru Aldundiak Lurraldeko 91 udalerritan dauden 160 “kolesterolaren ibilbide” jaso ditu eta horiek www.bizkaia.eus/kolesterolarenibilbideak webgunean ipini ditu herritarren eskura. Ibilbideak herritarrek berez ezarri dituzte eta webgunean informazioa ematen da, besteak beste, luzerari buruz, zailtasunari buruz eta ibilbideen ezaugarriari buruz. Txorierrin 16 ibilbide batu dira. Haien artean hauek daude: Zamudio – Teknologia Parkea (5,81 km); Derio – Bidegorri – Astikene (2,87 km); Sondika – Derio (4,59 km); Larrabetzu – Goikolexea – Ugalde (3,81 km); Lezama – Torrelarragoiti (4,12 km). Sondika itzulua (8,44 km); eta Loiu: Zabaloetxe – Lauroeta (4,83 km).

Lezkano arraunlari larrabetzuarra, Bizkaiko eta Euskadiko txapelduna



Izaro Lezkano Pereiro larrabetzuarra Kaiku klubean dabil arraunean. Gazteak urrezko domina lortu du aurten, Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan, kadete kategorian eta doble skull modalitatean (banku mugikorra). Kide Haizea Casamayor Milego sestaoarra izan du. Lezkanok adierazi digun moduan, “oso pozik gaude. Entrenamendu gogor eta askoren ostean, eta asko sufritu ostean, helburuak lortu ditugulako”.

Larrabetzuarraren esanetan, nahiz eta lehenengo postuan gelditzea ez espero, Bizkaiko txapelketa irabaztea errazagoa izan da. “Lehiakideen maila ezagutzen genuen eta bagenekien aukerak genituela”. Euskadikoa irabaztea zailagoa izan zen. “Aurreko asteburuan estropada bat egon zen maila ikusteko eta bertan bigarrenak

lotu ginen. Irabazleek lau segundoko alde atera ziguten. Txapelketaren kanporaketan lehenengoak lotu ginen, baina bigarrenari bakarrik hiru segundoko alde atera genien. Beraz, pozik ibili ginen, baina urduri ere bai. Eta azkenean, irabazi egin genuen. Gainera, gogorra izan zen, txapelketa Legutioko urtegiaren zelako eta guk ez genuelako estropada-zelai hori ezagutzen”.

Euskadiko txapelketak irabazteak Espainiako txapelketara, Sevillara, eraman ditu uztailaren. Bertan, laugarrenak gelditu dira eta Izaroren hitzetan, gazi-gozoa izan da. “Izan ere, hirugarrenak hiru segundoko alde baino ez ziguten atera. Baina, tira, emaitza hori ere bada pozik egoteko modukoa. Ea hurrengoan!”.

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 54 49

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO
Loteria Nacionala

Leizola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Lezamarrak ere 11 egunean euskaraz

“Euskaraldia 11 egun 11 lagun” lelopean, Euskaraldia ekimena aurkeztu dute Lezaman. Ekimenaren protagonistak euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai diren herritarrek izango dira eta 11 egunean, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Lezaman euskaraz hitz egin eta entzun dadin hasi dira lanean jada.

Lezamako Euskaraldiaren batzordeak ohiko harremanetan euskaraz aritzeko gonbita egin die lezamarrei. Azaldu duten moduan, batzordea herritar ezberdinekin osatzen dute eta guztiz irekia da. “Elkarteek, taldeek eta herritarrek osatuta, euskararen alde egotetik euskaraz egitera

saltoa bultzatzeko indarrak batzen hasi da batzordea. Horren adierazlea aurkeztutako hamaikakoa izan da, herriko esparru ezberdinetakoak, enpresa mundukoak, irakaskuntzari loturikoak, kultura, musika, kirola edota gazte ekimenekin harreman dutenak: Fernando Olabarrieta, Gaizka Peñafiel, Nora Artetxe, Katalin Zarate, Edu Martin, Ander Pekeño, Antton Altube, Xabier Goikuria, Ines Piko, Pili Gorbea eta Nelly Romero”. Aurkezpen ekitaldiari amaiera emateko, Euskaraldiaren ordezkariak familia argazkia ateratzeko bildu ziren, eta herritar guztiak animatu zituzten egitasmoan parte hartzera.

Sagardotegiko menua, Altzora Egunean

Altzorak, Sondikako euskara elkarteak, bere eguna ospatuko du irailaren 22an, zapatuan, eta ohikoa den moduan, egun osoko egitaraua prestatu du. Hasteko, 13:00etan Ikurrinaren plazatik aterako dira dantza-poteoan Elaiak taldeko txistulariekin eta Gorantzaleak taldeko dantzariarekin. Gainera, nahi duenak aukera izango du irailaren 19an, 19:30etik 21:00etara, Gorantzaleak taldekoekin entsegua egiteko.

Trago batzuk hartu ostean, herri bazkaria edukiko dute 15:00etan, karpan. Aurten lehenengo aldiz eskainiko dute sagardotegiko menua eta txartelak leku hauetan erosi ahalko dira: Egarrri tabernan, Batzokian, txosnan eta 635753595 telefono zenbakira deituta. Txartelak hartzeko azken eguna irailaren 16a izango da. Nagusientzako bazkariak 17 euro balio du eta menua hau izango da: txorizoa sagardoarekin, entsalada hornitua, bakailao-tortilla, saiheski errea, gazta, irasagarra eta intxaurrak, eta nahi beste sagardo. Umeentzat, berriz, zukua, makarroiak, txitxi-burruntzia txingarretan erreta, jogurta, ogia eta ura egongo dira. Euren menuak 12 euro balio du.

Sabela bete ondoren, 16:30ean, musika-saioa eskainiko dute Txuma Olagüe abesbatzak eta Txuma Olagüe talde koralak. Taberna Ibiltariak lekukoa hartuko du eta arratsaldea girotuko du euskal abestiak kantatuz.



Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktua

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Magafarte txakolina

ARETXABALETA HONDA ETA BOTE LAURUA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Lot-1-45

Iñaki
94 455 65 08

Jabi
94 452 14 31

hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Zamudio taldeak denboraldi-aurre solidarioa egingo du Afrika Erdiko Errepublikan



Zamudio KE oporretan dago, baina laster hasiera emango dio denboraldi-aurreari. Aurtengoa berezia izango da, partidu batzuk non eta Afrikan jokatuko dituztelako, Afrika Erdiko Errepublikan, hain zuzen ere. Ez, Zamudiok ez du nazioarteko birarik egingo, Real Madril edo Bartzelona taldeek egiten duten moduan. Txorierri-tarrak proiektu solidario batean murgildu dira eta elkartasuna eramango dute Afrikara abuztuaren 3tik 12ra bitartean. Zamudio KE bertan jokatzen duen Europako lehenengo taldea izango da.

"Kirolaren bidez balioak helarazi nahi dizkiegu. Jendeak ez daki herrialde hori existitzen dela ere. Afrika Erdiko Errepublika munduko herrialde pobreenetariko bat da, nahiz eta hainbat baliabide natural izan -kafea, kotoia, tabakoa eta batez ere diamanteak-. Eta gainera, gerran daude. Guk partidu batzuk jokatuko ditugu hiriburuan, Bangui hirian, eta umeei zuzendutako campus bat ere antolatuko dugu", azaldu digu Fidel de Prado presidenteak.

Proiektua duela pare bat urte hasi zen. Fidel harremanetan jarri zen José Ramón Gaztelurrutia, Fútbol por la Paz-Alto el Fuego elkartearen kidearekin, bere emaztea Zamudiokoa delako. Gaztelurrutiak lan-eskarmentua du erakunde publikoe-

tan eta Afrika Erdiko Errepublikako ordezkaria da Estatuan. "Hasiera batean, hango selekzioaren kontrako partidu bat antolatu nahi izan genuen hemen, Zamudion, baina gerra zela-eta liga bertan behera geratu zen eta jokalariek alde egin zuten. Beraz, hara joatea erabaki genuen".

Proiektua kirolaren mugetatik baino harago doa, Estatu espainiarraren eta Afrika Erdiko Errepublikaren arteko harremanak piztu nahi dituztelako. Izan ere, herrialde afrikarrak Estatuan enbaxadarak ere ez dauka. Gaztelurrutiak proiektuaren berri eman zion Faustin Archange-Touadera presidente afrikaerdiarrari, eta Espainiako agintariak ere badaude jakinaren ganean. Eta, horrela, Patrice Edourd Ngaissona Afrika Erdiko Errepublikako futbol federazioaren presidentek Zamudio bisitatu zuen 2017ko irailean. Eta bere

semea, Thyron Ngaissona, zaletu mailako Zamudioko taldean ibili zen entrenatzen.

Ez da harritzekoa, beraz, proiektuak mundu mailan oihartzun handia izatea. "Hedapen handiko komunikabide batzuek eman dute gure bidaiaren berri, besteak beste, Reuters, Espainiako Telebista eta Europa Press. Eta beste talde batzuek proiektuan parte-hartzeko interesa adierazi dute. Afrika Erdiko Errepublikako umeek, futbolaz berba egiten dutenean, Bartzelona, Real Madril eta Zamudio aipatzen dituzte. Zamudio herriari buruz mundu mailan hitz egingo dute".

Segurtasuna

Proiektuaren inguruan, kezka bi agertu dira: dirua eta segurtasuna. Fidelek biak argitu dizkigu. "Bidaia nazioarteko enpresa batzuek ordainduko dute; ez hemen go enpresek, ez klubak. Segurtasunari dagokionez, gatazka nagusia hiriburutik kanpo dago. Gainera, bertako armadak babestuko gaitu. Ez luke zentzu handirik izango guri kalte egitea, laguntzera joango garelako. Jokalari batzuek beren zalantzak adierazi dizkigute. Guk ez dugu inor behartuko hara joatera, eta jokalari nahikorik ez balego, Espainiako Jokalarien Elkartek (AFE) behar beste jokalari bidaliko dizkigute. Herrialdearen egoera ona izango balitz, ez ginatke gu joango, Real Madril baizik, baina ez gara beldur".

Ez da zamudiotarrek elkartasuna adierazten duten lehendabiziko aldia. 2012an, esate baterako, laguntza eskaini zion Zamudioko Udalarai Saharako umeak hartzeko. Gainera, kamisetak bidali dituzte Tindoufeko kanpamentuetara, Indiarra eta Nepalera. Medicos Sin Fronteras elkar-teak Zamudio KEri erakutsitako esker ona ere bada beste adibide bat.

*Zamudio taldeak
bertan partidu batzuk
jokatzeaz gainera, umeei
zuzendutako campus
bat ere antolatuko du*

*"Afrika Erdiko
Errepublikako umeek
Bartzelona, Real
Madrid eta Zamudio
aipatzen dituzte"*



Diego Palomino Torres | fruten sorgintzailea

Garraiolari, eraikuntzan eta garbiketa-lanetan aritu ondoren, fruta munduan murgildu zen Diego Palomino. Urte batzuk geroxeago, familia kontuak tarteko, Sondikako Esther Fruta-dendan hasi zen lanean, aitaginarrebaren negozioan. Gaur egun, enpresako furgonetan ikus dezakegu atzera eta aurrera, astelehenetik zapatara, errekaduak egiten. Dio ze lanaren alderik onena jendearekin duen harremana dela.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Inor meloiren baten faltan baldin bada Diegoren furgoneta helduko da hara. Fruta lez gozoa eta freskoa bazara zugaz Diego gustura egongo ez gara ba!

Itallen Bertso Eskola

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

RPS! (84)10



PTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

BC FUN
Fitness Gym



Saio pertsonalizatuak,
entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu
funtzionaleko gunea
(HIIT makinak, kardiola funtzionala...)

Taldeko BCF saioak
(zikloa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak
(high intensity eremua, Indoor triatloia...)

BCF muskulazioa

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. lursaila, Ugaldeguren II
48170 ZAMUDIO

DOAN
Ekarri
iragarkia
eta matrikula

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



t/a: Gaizka Eguzkitza

Zergatik etorri zinen Loiura?

Loiuko Udaltzako gonbidatu ninduen. Errepublikara garaian batzokia bazegoen Loiun, baina Francok itxi zuen. Eta orain dela 40 urte, batzokia berriro ireki zutenean, neu ere egon nintzen bertan. Loiuko izugarri aldatu da azken 40 urteotan. Auzokide batek garai hartako bideoa eman zidan eta nik hori Sabino Arana Fundazioan utzi nuen. Politika izan zen urte haiek gogora ekartzea.

Gaztaroa Venezuelaren eta Euskal Herriaren artean eman zenuen, baina 1975ean hona etorri zinen behin betiko.

Bai, EAJ alderdian sartu nintzen eta Venezuelako bizi izandako eskarmentuari esker hasi nintzen lanean. Garai hartan kazetaririk ez zegoen, edo Erregimenaren aldekoak ziren. Ni, aldiz, herrialde demokratiko batetik nentorren. Beraz, *Euzkadi* alderdiko aldiakaria eta *Deia* egunkaria jarri genituen martxan. Garai gogorra izan zen, inork ez zekielako ezer: ez zegoen kultura politikorik, inork ez zekien jendaurrean hitz egiten... Eta horregatik, hain zuzen ere, joan nintzen Loiura duela 40 urte, erraztasuna nuelako jendaurrean hitz egiteko.

Harrezkero, ibilbide politiko luzea izan duzu, 1980tik 2015era bitartean.

Bai, hasieran, Eusko Legebiltzarrean. Gobernua dagoen alderdi baten legebiltzarkidea izatea ez da oso interesgarria, botoia sakatzea baino ez baituzu egiten. Gero, 1988an Madrilera joan nintzen EAJ alderdiaren bozeramaile, Espainiako Legebiltzarrean. Urte gogorak izan ziren, batetik EAJ eta EA banandu zirelako eta, bestetik, garai hartan ETA jende asko hiltzen zuelako. Eta hori Madrilaren gogoragoa zen. ETArekin ezin zirela-eta, egoera desatsegin batzuk bizi izan nituen: irainak, erasoren bat... Gainera, Ertzaintzak eskolta jarri zidan ETA nire atzetik ibili zela jakin zuelako. Azkenik, senataria izan nintzen. Ez dut uste inork 30 urte eman dituenik Madrilaren politikan. Azken mohikanoa izan nintzen (kar, kar).

Senataria ere izan zinen. Zertarako balio du Espainiako Senatuak?

Galdera ona. Senatuaren herriak ordezkatzeko ganbera da, baina Espainia asimetrikoa da, eskualdeak eta nazioak

**IÑAKI ANASAGASTI | EAJ alderdiko politikari ohia**

Berritsua, hurbila eta atsegina da Iñaki Anasagasti. EAJko kideak 35 urte eman zituen politikari, horietako 28, Madrilan. Horregatik dio "azken mohikanoa" dela. Ekainean, Txorierri bisitatu zuen, Loiuko Batzokiaren 40. urteurrena ospatzeko, hain zuzen ere.

daudelako bertan. Beraz, ez du zentzu handirik. Espainiako Senatuak Kongresuan egiten dutena kontrolatzeko balio du. Arazoa da ikusgarritasunik ez duela eta senatari gehiegi daudela. Niri gustatuko litzaidake abertzaleok -EAJ eta Bildu- Senatutik zerrenda bakarra osatzea, indartsuagoak izateko.

Zein da zure lorpen politikorik handiena?

Batzuk aipatuko nituzke. Esate baterako, Ekonomia Ituna geuk berreskuratu genuen 1981ean. Kataluniarrek esaten ziguten antzinako gauzak ez eskatzeko, baina gure ustez funtsezkoa zen, zergak jasotzen dituenak boterea duelako. Gainera, Alderdi Eguna neuk proposatu nuen, hori

Venezuelan ere egiten zutelako. Bestetik, ezin izan genuen Pablo Picassoren *Gernika* margolana Gernikara ekarri, baina bai, ordea, Henry Moore eskultorearen *Large Figure in a shelter* eskultura.

2015ean politika utzi zenuen. Zergatik?

Alderdiak erabaki zuelako. Bazen garaia, agian. Alde batetik, jarraitzea gustatuko zitzaidan; baina bestetik, beste gauza batzuk egiteko astia dut. Ez pentsa aspertzen naizenik: kolaborazioak egiten ditut hedabide batzuetan, liburuak idazten ditut... Agenda bete-beterik dut.

Gaurkotasanari buruz hitz egin dezagun. Zer deritzozu Espainiaren egondako gobernu aldaketari?



Pedro Sánchez ez dut miresten, baina argi utzi du oso saiaria dela, eta hori politikan azpimarratzekoa da. Inork ez zuen espero Pedro Sánchez presidentea izango zenik. Horrek adierazten du politika oso gorabeheratsua dela. Euskaldunok aukera aprobetxatu behar dugu. Izan ere, Espainiako gobernuak zenbat eta ahulagoa izan, orduan eta hobeto. Sánchezekin Gernikako Estatutua garatzen jarraitu behar dugu, falta zaizkigun konpetentziak hemendik kudeatzeko: espetxeak, gizarte-segurantzak... Horrela, Euskal Herria, nazio moduan, sendoagoa izango da. Espainian pribilegiatu hutsak gaita uste dute, baina ez dute aintzat hartzen hori lortzeko egin dugun lan gogorra.

*"Gobernuko
legebiltzarkidea izatea
ez da oso interesgarria,
botoia sakatzea baino
ez baituzu egiten"*

Venezuelan jaiotako euskalduna

1939an, Gerra amaitu zenean, Iñakiren aita erbestera joan zen, Venezuelara, eta han jaio ziren Iñaki Anasagasti (1947) eta bere anai-arrebak. Zazpi urte zituela, aldiz, aitak seme-alabak Euskal Herrian haztea erabaki zuen. "Garai hartan, Boris Izagirre moduan hitz egiten nuen (kar, kar). Donostiara heldu nintzenean, izena aldatu zidaten eskolan, izen euskaldunak subertsiboak zirelako: Iñakiren ordezkari, Ignacio".

Hamazazpi urte zituela, aita hil zen eta Iñaki Venezuelara joan zen berriro. "Han Ekonomia eta Kazetaritza ikasi nituen eta bitartean, izugarri inplikatu nintzen Caracaseko euskal etxean: saio bat egiten nuen *Radio Euzkadi* irrati klandestinoan; ikurriña zuten egutegiak egiten genituen, hona ekartzeko; baita *Gudari* aldizkaria ere... Euskal komunitatea Venezuelan oso handia zen garai hartan, Euskadiko edozein herri txiki bezalakoa zen. Eta euskal etxean ideologia anitzeko lagunok batzen ginen: ANV, EAJ, Jagi, ETA... Ez-

tabaida sutuak izan genituen geure artean, eta horrek kultura demokratikoa eman eta politikarako interesa piztu zidan". Euskal Herrira 1975ean etorri zen.

Iñakik "euskalduntzat" jotzen du bere burua, baina Venezuelari "esker-rak" eman behar dizkio, "euskalduntzat oso eskuzabala izan zelako eta oso ondo hartu gintuelako". Eta horregatik bereziki tamalgarria iruditzen zaio herrialde amerikarraren gaur eguneko egoera. "Venezuela oso herri aberatsa da: petrolio, bauxita... Agintariekin aberastasuna behar bezala bananduko balute, ez litzateke herrialdean txoririk egongo. Baina, nire ustez, ustelkeria oso handia da eta politikariak ere ez dira onak. Bizi-kalitatea izugarri jaitsi da Venezuelan, jendeak ez du zer jan. Beraz, gaur egun Venezuelak armadaren gainean oinarritutako diktadura da eta egoera oso txarra da. Kubak aurrera egiten duen bitartean, Venezuelak, atzera".

Eta Kataluniari?

Miresgarria da Quim Torren jarrera, amore ematen ez duelako. Finantzaketa eta autodeterminazio eskubidea dira gaioak, baina beste era batean aldarrikatu beharko dituzte, ez alde bakar batetik; bestela, kartzelan sartuko dituzte. Apurka-apurka landu beharko dute, Katalunian atxikimendu gehiago lortzeko. Epe luze boroa da hori.

Monarkiari buruz ere galdetu behar dizut...

Konstituzioaren 63. Artikuluaren arabera, erregeak gerra deklaratu du eta bakea egiten du. Iraken gerran, 2003an, berarekin bilera egiteko eskatu genuen, baina bakarrik Zapaterorekin batu zen,

garai hartako oposizioaren buruzagiarik. Beraz, Kongresuan galdetu nuen zertarako balio zuen erregeak. Eta horrek iskanbila handia sortu zuen. PPko diputatuak irainak ere esan zituzten: "Etakidea, txerria, nazkagarria...". Eta handik aurrera erregearen inguruko galderak hasi nintzen egiten Kongresuan. Kongresuko ki-deak oso urduri jartzen ziren. Neu izan nintzen erregea zalantzan jartzen hasi zen lehenengoetako bat eta liburu bi idatzi ditut Espainiako monarkiari buruz. Eta bitxia da, ze erregearen jauregira 100 aldiz baino gehiago joan naiz afari ofizialetara. Horietako batean, Gorbachovekin egon nintzen eta abertzalea nintzela esan ziotenean, sustan jarri zen (kar, kar). Erregearen kontrako gorroto pertsonalik ez dut, baina egia da Juan Carlos ez dela oso pertsona interesgarria: ez da azkarra eta emakumeak eta dirua baino ez zaizkio interesatzen. Corina bere amorantea berarekin bizi izan zen 10 urtean eta inork ez zuen ezer esaten. Isiltasun hitzarmena zegoen eta orain ez dago. Erregea ezagutu baino lehen monarkia- ren kontra nuen jarrera ezkorra indartu egin zen denboraren poderioz.

*"Ertzaintzak eskolta
jarri zidan
ETA nire atzetik
ibili zela
jakin zuelako"*

“Akatsik ohikoena animaliak huma

t: Itxaso Marina / a: Maied Urrutia Parra

Beharrezkoa da edozein txakur heztea?

Badaude txakurrak pertsonekin bizi izateko jaio direla ematen dutenak, eta horiek ez dute inoiz arazorik emango. Baina badaude beste batzuk hasiera-hasieratik arreta, ardura... handiagoa eskatzen dutenak. Hala ere, txakur guztiak hezi beharko lirateke hasiera-hasieratik, pertsoneri modu egokiagoan lotzen direlako, eta eskubideak eta mugak eduki behar dituztelako. Azken batean, txakurra heztea txakurra ezagutzea da, eta momentu guztietan eduki dezakeen jarrera aurreikustea, erabaki egokiak hartu ahal izateko. Txakur bat zer den jakin behar dugu, baita bere izaera nolakoa den ere.

Txakur helduak ere hezi daitezke?

Txakur helduek ere ikasten dute, baina hobe da gazteak direnean heztea. Izan ere, bi hilabetetik lau hilabetera bitarteko etapan txakurrak “esponja txikiak” dira eta beren bizitzan topatuko dituzten estimuluak kudeatzen ikasiko dituzte.

Eta gure txakurra txikitari hezi ez badugu, noiz jo behar dugu profesional batengana?

Ahalik eta lasterren. Jende askok arazoa handiegia bihurtu arte itxaroten du, eta arazo horrek benetako oztipoa ekartzen die beren egunerokotasunean.

Zeintzuk dira arazorik ohikoenak?

Beldurrak, agresibitatea... Arazoak sortzen dira pertsonen eta animalien arteko lotura txarto ezartzen delako, eta humanizazio bat dagoelako. Era berean, gerta daiteke bere izaeratik txakurra ez dela egokia pertsonekin bizi izateko. Jabeen ezagutzarik eza ere bada beste arazo-iturri bat.

Humanizazioa aipatu duzu.

Beren jarrera ulertzeko, txakurrei giza ezaugarriak emateko joera dugu. Guk be-

JATSU GUARESTI LANDETA | txakurren hezitzailea

Altzora Sondikako euskara elkarteak antolatuta, txakurrak hezteko ikastaro bat eman du adituak eta erakustaldia ere eskaini zuen herriko jaietan. Txakurrak modu egokian hezteko jarraibideak partekatu ditu gurekin.

zala pentsatzen dutela uste dugu, eta ez da horrela. Txakurrak hierarkikoak dira, eta euren gunea babesten dute. Sozialak ere badira, baina askotan ez dagozkien giza ezaugarri horiek ematen dizkiegu.

Nolakoa da heziketa-saio bat?

Saioak helburuen arabera izaten dira. Txakurkumeak direnean aurre-heziketa bat egiten da eta saioak oso dibertigarriak eta positiboak izaten dira. Etorkizunean jarrera zehatz batzuk edukitzeko prestatzen ditugu, eta horretarako, jokoak, janaria... erabiltzen da. Hala ere, txakurrak bere jarrera aldatzea nahi badugu, txakurrarengana zein gizabana-

koarengana egokitu beharko gara, eta momentu bakoitzean hobe den metodologia erabili. Ez ditugu berdin tratatuko txakur beldurti bat eta txakur oldarkor bat.

Gizabanakoengana egokitu?

Arreta txakurrarengan ipini behar dut, noski, baina askotan psikologoarena ere egiten dut. Biengana egokitu behar dugu.

Txakurrak modu positiboan hezi behar dira beti?

Modan ipini da metodologia positibo hori, eta lehengoak guztiz kontrakoak ziren. Nire ustez, muturrak ez dira onak. Bizitza ez da arrosa kolorekoa, ez guretzat,



“Txakur guztiak hezi beharko lirateke hasiera-hasieratik, pertsoneri modu egokiagoan lotzen direlako”

nizatzea da”

ez txakurrentzat, eta okerrak zuzendu behar dira. Baina jakin behar dugu zuzenketa hori modu proportzionalan egiten. Horrela, ez dugu zuzenketa bera erabili-ko sentikorra den txakur batentzat eta gogorragoa den beste txakur batentzat. Metodologia positiboa erabiltzen duten batzuek antsiolitikoak eta guzti agintzen dituzte, txakurrei zigorrak ez emateko. Eta kasu larrietan, animalia hiltzeko aholkua ere eman dute. Nik uste dut inportantea txakurraren bizitza salbatzea dela. Beraz, bere jarrera aldatzeko, zigorraren bat erabili behar badut, ba, erabiltzen dut eta bere akatsa zuzentzen dut.

Zein da jabeen akatsik ohikoena?

Lehen aipatutakoa: animalia-aren humanizazioa. Esate baterako, etxera ailegatu gara eta ikusi dugu zarama sukaldean sakabanatuta dagoela, txakurrak zarama-poltsa apurtu duelako. Errieta egiten diogu, pentsatzen dugulako txakurrak badakiela haserre gaudela zarama-poltsa apurtu duelako. Baina ez da horrela.



Txakurrak, adibidez, orain dela bost ordu apurtu du poltsa eta, ondorioz, ulertzen duena hau da: nire jabea etxera itzultzen denean, haserretu egiten da lurrean zarama badago. Ez du haserre poltsa apurtu izanarekin lotuko, eta hortaz, berriro egin-ko du.

“Arreta txakurrarengan ipini behar dut, noski, baina askotan psikologoarena ere egiten dut”

Zer egin beharko genuke orduan?

Egoera birsortzea. Hiru segundo baino ez daude, txakurrak gauza bat egin eta bere ondorioz jabetu dadin. Bere jarrera beranduago zuzentzen badugu, alferrik da. Autoritatea eta diziplina erakutsiko dizkiogu eta, beharbada, begirune handiagoa edukiko digu, baina ez du ezer ikasiko. Eta gero arazoak etorriko dira.

Zein aholku emango zenieke txakurkumea hartu berri dutenei?

Txakurtxoak hilabete bi betetzen dituen hezitzailearengana eraman dezatela, adin horretatik aurrera animalia sozializatzen hasi behar delako. Gauza asko ikasten dute eta gero, etorkizunean, itzel nabaritzen da aurre-heziketa jaso duten edo ez.

Hezitzailea

Jatsu orain dela zortzi urte hasi zen txakurrak hezten. “Etxean beti eduki ditugu txakurrak, eta beti entzun dut beharrezkoa dela horiek heztea, baina ordura arte ez nuen burutik pasatzen heziketa mundu hau. Ikastaro bat egin nuen, hezitzaile aritzeko asmo bari-rik; hala ere, gauza bat dela, beste-koa dela, ba, hemen nago”. Bere esanetan, txakurren hezitzaileak neurriko pertsona izan behar du, eta aktore ona, eta indarrak bil-tzen jakin behar du. “Egun onak eta txarrak eduki ditzakegu, nos-ki, baina txakurrak ez daki hori. Beraz, pertsona orekatuak izaten saiatu behar gara”. Esfortzu han-diagoa edo txikiagoa erabilita, txakur bakoitzarengana egoki-tzen jakin izan du eta animaliak aurrera ateratzea lortu du. “Eta haiei esker pertsonak tratatzen ere ikasi dut”.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbelde Heziketa eta Irigarren Ikaskuntzaren Ikastetxea

Unizaga Itzia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierni.net
48160 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierni.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

EUSKO SAHULANITZA **GOBIERNO VASCO**
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA eta IRIGARREN IKASUNTZAREN IKASTETXEA

AENOR **ERRI ONURAKO**
Gehigarri Ambiental **ERRI ONURAKO**
COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA

Primer centro de FP de Bizkaia
distinguido con la Q de oro
Premio Vasco a la
Calidad de Gestión

ikastolenkartea **HETEL**

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari



Ariketa fisikoaren orientazio-zerbitzuak bizi-ohitura osasungarriak sustatuko ditu Txorierrin

Zerbitzuak sustapen- eta dinamizazio-jarduerak egingo ditu, eta aholkularitza eta orientazio pertsonalizatua eskainiko die herritarrei ariketa fisikoa egiteko modu eta leku egokiari buruz, bakoitzaren baldintzak eta gustuak aintzat hartuta eta betiere udalerri bakoitzaren baliabideen barnean.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, bizimodu aktiboa sustatzea helburu duela, ariketa fisikoaren orientazio-zerbitzua ipiniko du martxan. Zerbitzu horren bidez sustapen- eta dinamizazio-jarduerak egingo dira eta herritarrei aholkularitza eta orientazio pertsonalizatua eskainiko zaie.

Zerbitzu berri hori Mugi Txorierrin proiektuaren esparruan sortu da. Diziplina anitzeko programa bat da, eta horren baitan, Mankomunitateko eta bere udalerrietako eragileak lankidetzan ari dira Aldundi-ko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko eta Osakidetzako langileekin. Horrez gain, Mugiment-eko teknikarien laguntza ere badute, Txorierriko herritarren artean ariketa fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko. Horren bidez, 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planari jarraituta egingo da lan. Plan horren helburuen ar-

tean jasotzen da herritarren artean ariketa fisikoa sustatzea.

Horretarako, Txorierriko ariketa fisikoaren orientazio-zerbitzuak udalerri bakoitzak ariketa fisikoa egiteko dituen baliabide publikoak eta doakoak aktiboki sustatuko ditu. Horien artean daude oinez egiteko ibilbideak, parke bio-osasungarriak eta beste proposamen batzuk.

Gainera, prestakuntza-saioak eta tailerrak egingo dira udalerri bakoitzeko kolektibo desberdinei zuzenduta. Horrela, herritarrek prestatuko dira ariketa fisikoa modu seguru, eraginkor eta autonomoan egin ahal izateko.

Dinamika berak zuzenduko ditu ariketa fisikoaren orientazio-zerbitzuko kontsulta pertsonalizatuak. Horietan, ariketa fisikoa egiteko erabilgarri dauden baliabideak ezagutzen dituen aditu batek jar-

duerarik egokiena proposatuko du kasu bakoitzerako, eta hori egiteko jarraibideak eskainiko ditu. Horretarako, norberaren beharrak, interesak eta mugak aintzat hartuko ditu. Tokiko eragileek, hala nola ikastetxeek, anbulatorioek edo gizarte-zerbitzuek, bizi-ohitura aktiboagoak lortu nahi dituzten pertsonak zuzenduko dituzte zerbitzu berri honetara.

Halaber, ariketa fisikoaren orientazio-zerbitzuak taldeko edo komunitateko jarduerak diseinatuko ditu, orientazio-programa indibidualak osatzeko.

Horrekin guztiarekin, zerbitzuak eskualdean egiten den ariketa fisikoaren maila jaso ahal du erregistro batean, Txorierriko bizilagunen ariketa fisikoa areagotzera bideratutako ekintzak diseinatzeko; batez ere emakume gazteen eta 60 urtetik gorako bizilagunen artean.



Txorierriko lau taldek hartu dute parte lonja arteko futbol 7ko txapelketa mistoan

Ekainaren 30ean, Derioko hiru taldek eta Sondikako beste talde batek parte hartu zuten lonja arteko futbol 7ko txapelketa mistoan. Ekimena Susterra elkar-teak antolatu zuen, Lokalean programari esker (gazteen lonjetan hezkuntzaren ar-loan esku hartzeko zerbitzua).

Partidak goizeko 10:00etan eta arratsaldeko 17:00etan izan ziren, Galdakaoko Ellexalde zelaian. Guztira, 120 gaztek hartu zuten parte txapelketan, 12 taldetan banatuta. Horietako bost Galdakaokoak ziren, hiru Deriokoak, bat Sondikakoa, beste bi Bilboko Abusu eta San Frantzisko auzoetakoak, eta herri ezberdinetako partaideez osatutako beste talde bat.

Txapelketa udalerrri desberdinetako gazte talde batzuen artean sortu zen, eta futboleko aritzeko, ondo pasatzeko, esperientziak partekatzeko eta elkar eza-gutzeko topaketa gisa planteatu zen. Parte-hartzaileak 17 eta 25 urte bitartekoak izan dira eta, deialdia mistoa bazen ere, gehienak gizonak izan dira.

Hori dela eta, esperientzia honek ba-lorazio oso ona izan duenez, etorkizunean



antzeko ekimenak planteatuko dira, eta horien bidez jende gehiago –batez ere, neskak– erakartzen saiatuko da. Horretarako, planteatuko diren ekintzek zerikusia

izango dute aisiarekin, kulturarekin, beste kirol batzuekin edo gazteen intereseko gaietara buruzko eztabaida edo hausnarketarekin.

Jaietan ondo pasa eta ez zaitez pasa!

• Txorierriko Mankomunitateak gogorara-zi nahi du jaietan ere berdintasunaren alde lanean jarraitu behar dugula, eta etxeko eta zaintzari lotutako lanak banatu egin behar di-rela, guztiok izan deza-gun egun hauetaz era-bat gozatzeko aukera.



• Ez dugu guardia jaitsi behar eta adi egon behar dugu guz-tiek gozatu ahal izateko. Bestearenganako errespetuak arau izan behar du. EZ beti da EZ, eta BAIEZKOA EZEZKO bihur dai-teke edozein unetan.

• Horrez gain, babesa erabili behar dugu sexu-harremane-tan, nahi gabeko haurduntzak edo sexu-transmisiozko gaixota-sunak saihesteko. Izan ere, arrisku horiek ez dira behin-behine-koak, jaiak bezala, iraunkorrak baizik.

Osasunaren aldeko lasterketak 2.282 euro bildu ditu

Kopurua erdibana eman zaie Loiuako Danontzat Elkarteari eta Sondikako Cáritasi. Zenbatekoa izen-emateen bidez esku-ratutako diruak eta Altxaga ikastolako Altxerri Leioa mendi tal-deak eginiko ekarpenak osatzen dute. Txorierriko Osasunaren aldeko Lasterketaren bosgarren edizioa apirilaren 22an izan zen, Sondika eta Loiu udalerrien artean. Parte-hartzaileek sei kilometroko ibilbide laburra edo 10 kilometroko ibilbide luzea egin ahal izan zuten.



a: Idoia Andrés

Txupinazoa abuztuaren 14an botako badabe be, ohikoa dan moduan, Futbol 7 txapelketeak hasiera emongo deute jaiei abuztuaren 12an. Egun horretan kanporaketak jokatu dira eta hurrengo egunean, astelehenean, finalurrekoak eta finala. Ostan, herri afaria egongo da eta jarraian, aurtengo nobedadeetariko bat: Larrabetzuko talentu lehiaketea. "Gura dauenak igon ahal izango dau oholtzara bere talentua erakustera. Edozein gauza egin daiteke: dantza, malabarismoa...", esan deuskue Intxurreta jai-batzordetik.

Martitzenean Kintoen Eguna izango da. "Giro itzela dago herrian egun horretan". Besteak beste, triatloia eta erromeria edukiko dabez. Abuztuaren 15ean, Andra Mari Egunean, kalejira aterako dira goizean. "Gainera, buruhandi eta erraldoi bariak ditugu". Nobedade moduan, Bizkargi herriko dantza taldeak dantzen agerraldia eskainiko dau Kataluniatik etorriko dan Colla bastonera Cop de Garrot taldeagaz batera. Arratsaldean, umeentzako jolasak egongo dira. "Herriko umeen kontseilueguz batu gara eta galdetu deutsegu zer gustauko litxakien jaietan egotea. Euren eretxia be hartu dogu kontuan". Era berean, txarangea, karrozen desfilea eta zumba saioa egongo dira. Matraka elektrotxarangeak amaiera emango deutso jaietako egun handiari.

Andramarien azken eguna umei eskainiko jake. "Puzgarriak egongo dira igerileketan, pintxo lehiaketea egingo da eta bazkaria edukiko dabe umeen parkeko aterpean". Horrez gainera, eta helduei zuzenduta, sukalki txapelketea egongo da. "Txapelketa hori gero eta arrakasta handiagoa hartzen dabil". Igaz Lekittoko Deabruak antzerki taldeak ikuskizuna eskaini eban Larrabetzun, eta ekitaldia hainbeste gustau zan, ezen aurtan be aukerea egongo dan euren piroteknia-ikuskizunaz gozatzeko. "Ostan, dantza lehiaketea edukiko dogu, hainbat estilotakoa: tango,

*Bizkargi dantza taldeak
dantzen agerraldia
eskainiko dau Cop de
Garrot taldeagaz batera*

Talentu lehiaketea, nobedadeetariko bat

Jai herrikoien eta parte-hartzaileen alde egin dau beste behin Intxurreta Larrabetzuko jai-batzordeak. Andramariak eta Emeteriak herritar guztiei zuzendutako ekintza interesgarri beteta datoz, kalera urteteko eta jai-giroan murgiltzeko modukoak.



country... Lehiaketa horrek arrakasta handia izaten dau eta jentetza batzen da plaza. Oso giro polita sortzen da". Tximeleta erromeria taldeak goizalde girotuko dau.

Emeteriak

Intxurreta jai-batzordeak emeteriak berbizteko ardura hartu eban igaz eta aurtan be ildo horretatik jarraituko dabe. Horrela, bada, ekitaldiz beteta etorriko jakuz abuztuaren 30etik irailaren 1era bitarteko egunak.

Eguenean kalejira egongo da, marmitako eta mus txapelketak, eta erromeri

*Aurtan, hiru
erromeria egongo dira
emeterietan: Drindots,
Ezten Giro eta Irtzar*

talde bi: Gauargi umeentzat; eta Drindots, helduentzat. Barikuan, bertso-saioa eskainiko dabe Anjel Mari Peñagarikano eta Jone Uria bertsolariek, eta altxoraren bila ekitaldi erraldoia egingo da arratsaldean. Musikea La jodedera eta Ezten Giro taldeek ipiniko dabe. Azkenik, Kulki jolasak, apar-jaia, herri kirolen desafioa eta erromeria Irtzar taldeagaz egongo dira.

Jai herrikoiak antolatzen dira Larrabetzun, herritarrengan pentsatuta herritarrek kalera urten daitezkan, sortzen dan giroaz disfrutatzen. Halanda be, jai-batzordetik adierazo daben moduan, bost kide baino ez dira eta gaxa da urterik urte idea bariak asmatzea. Nahiz eta azkenean beti lortzen daben egitarau dotorea antolatzea. "Gurea oso herri txikia da eta erraz galdetu ahal deusagu jenteari zer gustauko litxakien jaietan egotea. Ekarpn guztiak hartzen doguz kontuan, baina erabagiak bost lagun artean hartzea ez da erraza". Horra hor, beraz, euren eskaera.

LARRABETZUKO JAIAK 2018



ANDRAMARIEK
ABUZTUAK
13,14,15 & 16

SAN BARTOLOME
ABUZTUAK 24

EMETERIEK
ABUZTUAK 30,31
IRAILAK 1

ANTOLATZAILEA

INTXURRETA
JAI BATZORDEA

WWW.LARRABETZU.ORG/JAIK

LAGUNTZAILEA



Abuztuak 12, domeka

–17:30 Futbol 7 txapelketearen kanporaketak.

Abuztuak 13, astelehena

–17:00 Futbol 7 txapelketearen final-lurrekoak eta finala.

–20:00 Herri afaria.

–Futbol 7 txapelketearen sariak banatzea.

–22:30 Kantuz kantu eta Larrabetzu-ko talentu lehiaketea.

Abuztuak 14, martitzena

–18:00 Triatloia.

–20:00 Txupinazoa, Saharako umeen eskutik eta trikitilariakaz, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz, Matxinegaz, Jesusagaz eta Akerbaltzegaz.

–22:00 Xaibor.

–00:00 Erromeria: Laket.

Abuztuak 15, eguaztena

–11:30 Kalejireia, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz, Matxinegaz, Jesusagaz eta Akerbaltzegaz.

–12:00 Dantzak: Colla bastonera Cop de Garrot (Katalunia) eta Bizkargi dantza taldea.

–13:30 Joselontxo's txarangea.

–17:00 Umeentzako jolasak, Anguleri kultur etxearen atzealdean.

–17:00 Joselontxo's txarangea.

–19:00 Karrozak.



Jai-egitarauak



–21:30 Zumba.

–22:30 Matraka elektrotxarangea.

Abuztuak 16, eguena

–11:00 Kalejireia, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz, Matxinegaz, Jesusagaz eta Akerbaltzegaz.

–11:00 Puzgarriak, igerilekuetan.

–13:00 Umeen pintxo lehiaketea.

–14:00 Umeen bazkaria.

–14:30 Sukalki txapelketea.

–19:30 Sokamuturra.

–21:30 Lekittoko deabruak.

–23:00 Dantza lehiaketea.

–00:00 Erromeria: Tximeleta.

Abuztuak 24, barikua.

San Bartolome

–13:00 Igel-toka txapelketea (0-16 urtera artekoentzat).

–14:30 Paella txapelketea.

–17:00 Briska txapelketea.

–18:00 Igel-toka txapelketea (16 urtetik gorakoentzat).

EMETERIAK

Abuztuak 30, eguena

–12:00 Kalejireia, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz, Matxinegaz, Jesusagaz eta Akerbaltzegaz. Txupinazoa.

–14:30 Marmitako txapelketea.

–17:00 Mus txapelketea.

–17:30 Gauargi umeentzako erromeria.

–22:00 Erromeria: Drindots.

Abuztuak 31, barikua

–12:30 Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano vs. Jone Uria.

–17:00 Briska txapelketea.

–18:00 Altxorraren bila.

–19:30 La jodedera musika taldea.

–22:30 Erromeria: Ezten Giro.

Irailak 1, zapatua

–12:00 Kulki.

–17:00 Apar-jaia.

–19:00 Herri kirolen desafioa.

–22:00 Erromeria: Iratzar.

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUAK
eta GAUEZ
MUSIKA ETA PARRANDA

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub

PELIKULA
Estetika
94 455 81 44
Angleri 2. behe Larrabetzu-Bazkara



Jai euskaldunak
opa dizkizuegu

arrekikili
Larrabetzuko euskara elkarteak




LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



**GAZTE
LEKU**
taberna

Andra Mari, 6
48195 LARRABETZU

94 455 71 51
635 73 93 65



**LARRABETZUKO
BATZOKIA**

Eguneroko zein asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Aliprox

Ondo pasa jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



**LARRABETZU
BIZIRIA**

**ETXEEN
GURU DOGUZ
JAIETAN**

ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64



ETORKI TABERNA

*Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1
Tel.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU
(Bizkaia)

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono: 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

Sorpresa, agertokiaren gainean

Abuztuaren erdialdera arte ez dabe jakinarazoko zein dan zapatu gauean arituko dan taldeetako bat. Aurreratu daben moduan, Estatuko taldea da eta normalean sarrera erosi behar da bere kontzertuak ikusi ahal izateko.



a: Gaizka Peñafiel

Motorrak berotzen hasteko, San Antolin ospatuko dabe irailaren 2an. Gainera, urtero lez, kirolariek eta familiek hitzordua eukiko dabe egun berean "Lezamako mugetatik" mendi lasterketa eta martxagaz. Pregoia Ekidazu abesbatzak botako dau irailaren 7an, eta handik aurrera jai-giroa nagusi izango da Lezaman.

Pelota partiduen ostean, kuadrillen moztorro-jaitisiera izango da Mikel Zarate enparantzatik. Aurtengo gaia "publizitatea" izango dela, jaitisiera hori jai-egitarauaren ekintzarik aitagarrienetako bat da, Baso-baltz jai-batzordearen ustez. Jaitisiera txupinazoagaz lotuko da, eta jarraian, Sakatu elektrotxarangeak girotuko dau tabernaz tabernako poteoa. "Pregoia Ekidazu abesbatzak irakurriko dau aurren. Horreek aukeratu doguz, urte asko daroezalako bai herriko jaietan, bai urteko gainerako ekitaldietan parte hartzen". Moztorro lehiaketaren sariak banatu eta kontzertuei ekingo diete. Toc, Egurra ta kitto, Josetxu Piperrak

& The Riber Rock band eta Urrats taldeak agertokira igoko dira. Gainera, tabernetan eta jatetxeetan odolosteak eskainiko dira afaltzeko, eta moztorroa janzten dabenek 2x1 eukiko dabe garagardo eta kalimotxo katxietan eta alkohol bako edarrietan, 21:30etik 00:00etara.

Zapatuan egun nagusia izango da, Andra Mari Eguna, eta eguerdian jaietako nobedadeetariko bat egongo da: tortilla txapelketa. "Era berean, ume eta gazteentzako ekintzak indartu egin ditugu". Arratsaldean, pelota partiduak izango dira, kaleko antzerkia eta abesbatzen kontzertua. Gaua En Tol Sarmiento eta

Ozen taldeek musikatuko dabe, baita momentuz sorpresa dan beste talde batek ere. "Abuztuaren erdialdera arte ez dogu esango talde hori zein den. Estatuko talde bat da eta normalean sarrera erosi behar izaten da horren kontzertuak ikusi ahal izateko. Jaialdi askotan hartu dau parte eta ez da ohikoa Euskal Herrian ikustea", aurreratu deuskue. "Erabagia hartzea erraza izan ez dan arren, uste dogu arrakastatsua izango dala. Arriskatu gura izan dogu, bere abestietan oso balio aberatsak helarazten ditualako". Jatetxeetan eta tabernetan, berriro egongo dira odolosteak afaltzeko.





Lezama ko Udala



www.lezamakojaiak.com

Lezamako Jaiak

2018

*Jai-batzordeak deia
egin deutse herritarrei,
jaien antolakuntzan
parte hartzera
animatu daitezaz*

Domekan jaiak jarraituko dau. Besteak beste, dantzen agerraldia eta mariachiak egongo dira. Bolalekuko jaiak paella eta mus txapelketak, puzgarriak, txokolatadea eta erromeria ekarriko deuskuez astelehenan.

Trena gauzez

"Adin-tarte ezberdinetakoei zuzendutako jaiak antolatzen saiatzen gara, herritarren parte-partea ahalik eta handiena izan daiten". Halanda be, aitortu deuskue gero eta gatxagoa dala jaiak urterik urte antolatzea. "Gero eta jente gitxiago gagoz jai-batzordean. Ideak bukatzen doaz eta, gazteak garen arren, gatx egiten jaku adin-tarte guztientzako ekintzak asmatzea. Herriko alkarteak eta Udala hor dagoz laguntzeko, baina hemendik deia egin gura deutsegu herriko gazteei zein nagusiei, jaien antolakuntzan parte hartzera animatu daitezaz".

Erraza ez bada be, Basobaltz jai-batzordeak, betiko moduan, jai-egitaru dotorea prestatu dau aurtengo andramarietarako. Orain lezamarrak eta txorierriarrak kalera urten eta jai-giroan murgiltzea baino ez da falta, Lezaman jai biribilak eukitzeko. "Gainera, trena egongo da gau osoan eta, ondorioz, ez da kotxea hartu beharko. Beraz, ez dago atxakirik!".

Kurtzeko jaiak

Lezamako auzoan, Santa Kurtze ospatuko dabe irailaren 13tik 15era bitartean. Bertan, betiko eskemeari jarraitu jako, eguneko jaia eta txapelketa gastronomikoak indartuz. Txupinazoa barikuan botako dabe eta ostean kalejirea eta erromeria egongo da. Egun nagusia zapatua izango da. Ohi-koa dan moduan, sukalki eta tortilla txapelketak antolatu dira eta, nobedade moduan, Lleidatik etorriko dira erraldoiak eta buruhandiak. Gainera, umeentzako jolasak, elektrotxarangea, zozketak, afari-meriendea eta txokolatadea egongo dira. Sorgina erretzeak amaierare emongo deutse jaiak.



Jai-egitarauak

Irailak 2, domeka

- 08:00 "Lezamako mugetatik" XIII. mendi martxea.
- 09:30 "Lezamako mugetatik" XIII. lasterketea.
- 09:30 Txikien ibilaldia.
- 12:30 Mezea. Ostean, Kopaua, trikitilariak girotua. San Antolin auzoan.
- 14:30 Adintsuen bazkaria.
- 14:30 Bazkarirako txartelak erosteko epea amaituko da. San Antolin auzoan.
- 15:00 Herri bazkaria (okela gisatua). San Antolin auzoan.
- 16:00 Briska eta mus txapelketak. San Antolin auzoan.

Irailak 7, barikua.

Odoloste Eguna

- 18:00 Pelota partiduak: Pelotako eskolako umeak eta "Andra Mari" Pelota Txapelketearen finalerdiak.
- 19:00 Kuadrillen jaitsierare, Mikel Zarate enparantzatik. Gaia: Publizitatea.

-19:30 Txupinazoa eta pregoia, Ekidazu abesbatzearen eskutik.

-19:45 Poteoa, Sakatu elektrotxaranga girotua.

-21:30 Txosnak zabaltzea.

-22:00 Umeen moztorro lehiaketearen sariak banatzea.

-21:30-00:00 Mozorrotuta dagozanentzat, 2x1 garagardo eta kalimotxo katxietan eta alkohol bako edarietan.

-22:00 Kontzertuak: Toc + Egurra ta kitto + Josetxu Piperrak & The Riber Rock band + Urrats.

-01:00 Nagusien moztorro lehiaketearen sariak banatzea.

-Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 8, zapatua.

Andra Mari Eguna

-11:00-14:00 Umeentzako ekintzak eta puzgarriak.

-12:30 Mezea.

KURTZEKO JAIK

Irailak 13, eguna

-Odolosteak, auzoko tabernetan.

Irailak 14, barikua.

Santa Kurtze Eguna

-12:30 Mezea, ermitan.

-Txupinazoa eta kopaua, auzokoentzat.

-20:00 Kalejira tabernetatik, KZ taldeagaz.

-22:30 Erromeria, Broken Izotz taldeagaz.

Irailak 15, zapatua

-10:00 Mahaia eta aulkiak banatzea.

-11:00 Umeentzako tailerrak.

-11:30 Sukalki eta tortilla txapelketetan izena emotea.

-12:00 Mezea, ermitan.

-13:00 Erraldoiak eta buruhandiak, Grallers y Tabalers D'Alcano taldeagaz (Lleida).

-14:00 Sukalkia eta tortillak aurkeztea. Ondoren, sariak banatzea.

-14:00 Jolasetan parte hartzen daben 12 urtetik beherako umeentzako bazkaria.

-Umeentzako jolasak.

-18:00 Sakatu elektrotxaranga.

-19:00 Erraldoiak eta buruhandiak.

-20:00 Zozketak.

-20:00 Afari-meriendea: solomo eta hiru-giharra-ogitartekoak.

–13:00 Tortilla txapelketan izena emotea.

–14:30 Tortillak aurkeztea.

–16:00-19:00 Umeentzako ekintzak eta puzgarriak.

–18:00 Pelota partiduak: Pelota Eskolako umeak, emakumezkoen partidak eta "Andra Mari" Pelota Txapelketearen finala.

–19:15 *Babo Royal* kaleko antzerkia, Ganso & Cía taldearen eskutik. Plazan.

–20:15 Kontzertuak, eleizan: Ekidazu eta Bilboko korua eta ganbera-orkestra.

–22:00 Txosnak zabaltzea.

–23:00 Kontzertuak: En Tol Sarmiento + Talde sorpresa + Ozen erromeria taldea.

–Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 9, domeka

–12:30 Mezea.

–13:15 Dantzak, Kurutze dantza taldearen eskutik. Ostein, kopaua herriko plazan.

–17:30 Xailbor diskofestea.

–19:30 Mariachiak.

Irailak 10, astelehena.

Bolalekuko jaiak

–13:30 Paella txapelketan izena emotea.

–15:00 Paellak aurkeztea eta sariak emotea.

–16:00 Mus txapelketea.

–17:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.

–19:30 Txokolatadea.

–20:00 Hotza erromeria taldea.



Grallers y Tabalers D'Alcano taldea

–21:30 Diskofestea.

–22:00 Sorgina erretzea eta suziariak.

–Diskofestea.

Goitioltza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

LAPIKO/s.l.
Enkarnazio materialak - Dekorazio

Bº. Gensioitza, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tlf: 94 455 63 98 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 98

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK

BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

TABERNA GAZTEDEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

**LA
GUN
KOR**

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABILIA
ZERBITZU BULEGOA

aretxalde, 68 - 48196 lezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

GOXO-GOXO LOHTIZUN

Aretxaldean zabalik
Ogile egunero
Besteak eukerguz

Gensioitza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxoiohitzun@hotmail.com

OXANGOITI
Kutur Elkartea **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

Andramariak Erandiogoikoa

Abuztuak 14, martitzena

- 18:00 Irrien lagunak.
- 19:00 Triki-poteoa.
- 21:30 Txitxi-burruntzia.
- 23:30 Erromeria.
- Dja.

Abuztuak 15, eguaztena

- 11:00 Umeentzako puzgarriak.
- 11:00 Paella lehiaketari hasierea emotea.
- 13:00 Goi-Alde dantza taldearen ekitaldia.
- 14:30 Paellak aurkeztea.
- 16:00 Xaiborren ikuskizuna.
- 18:00 Paella lehiaketareen sariak banatzea.
- 18:30 Kuadrillen arteko jolasak.
- Kupelak hustea.

Sandoni Zamudio

Abuztuak 31, barikua

- 18:30 Txupinazoa.
- 19:00 Tor magoa.
- 20:00 Idi-probak.
- Ostea, txitxi-burruntzia eta euskal erro-meria, Kantarelux taldeagaz.

Irailak 1, zapatua

- Umeentzako puzgarriak eta tailerrak, egun osoan.
- 12:00 Mezea, ermitan.
- Ostea, euskal kantak.
- 14:00 Paellak aurkeztea.
- 16:00 Mus txapelketea.
- Ostea, sariak banatzea eta txitxi-burruntzia.
- Berebena, Joxe Mendizabalagaz.

Irailak 2, domeka

- 12:00 Mezea.
- Ostea, edadekoentzako omenaldia eta kopaua.
- 13:00 Hiru bat dantza taldearen emonaldia.

Auzoak be jaietan

Abuztuan eta irailean jaiak ospatuko dira Txorierriko auzoetan. Uztaileko alea itxi orduko, honeen barri euki dogu. Baina adi egon, gehiago egongo dira-eta.



Santimami Zamudio/Derio

Abuztuak 16, eguena

- 12:30 Jaien hasierea eta txupin nagusia.
- 14:30 Herri bazkaria.
- 18:30 Dj Xaibor.
- 21:00 Txitxi-burruntzia.
- 21:30 Fanfarrea.

Abuztuak 17, barikua

- 11:30 Ur-parkea.
- 12:30 Mezea, ermitan.

- 13:30 Bertokoko trikitilariak.
- 14:00 Sukalki txapelketareen kazolak aurkeztea.
- 16:30 XXII. Mus txapelketea.
- 17:00 Apar-jaia.
- 18:30 Zurezko imajinak.
- 20:00 Tortilla txapelketea.
- 21:00 Sardina jana.
- 22:00 Fanfarrea.
- 24:00 Sorgina erretzea eta txokolatadea.

Abuztuak 18, zapatua

- 11:30 Puzgarriak.
- 12:30 Mezea, ermitan.
- 13:00 Nagusientzako kopaua.
- Jaien amaiera eta agurra.





a: Juanjo Ortiz

Larrondo Loiu

Abuztuak 31, barikua

- 18:00 Txupinazoa.
- 18:00 "Joseba Bilbao" VII. Futbol Hiruko Torneo: CD Loiu - SD Erandio - CD Padura.
- 19:30 Umeentzako pelikulea.
- 21:30 Txapelketa: tortillak aurkeztea.
- 22:30 Berbenea, Garilak 26 taldeagaz.

Irailak 1, zapatua

- 14:30 Herri bazkaria.
- Mus, tute eta briska txapelketak.
- 17:00 Txiki txef tailerra eta txanpiñoi solidarioak.

-22:00 Mozorro festa, umeentzat: Larrondo zirko bat da.

-22:30 Mozorro festa, nagusientzat: musika estiloak.

-23:00 Berbenea, Bidean taldearen eskutik.

Irailak 2, domeka

-12:00 Mezea, auzoko hildakoen oroime-nez eta aurrekua.

-13:00 Dantzen agerraldia, Gorantzaileak dantza taldearen eskutik.

-13:00 Omenaldia auzoko nagusiei eta kopaua.

-14:00 Txapelketa: piperrak aurkeztea.

-14:00-15:00 Txapelketa: paellak aurkeztea.

-16:30 Apar-jaia.

-17:30 Diskofestea, Xaiborregaz.

-21:00 Jaiak amaitzea.

San Bartolome Zamudio

Abuztuak 23, eguena

- 17:00 Hasierako trakea.
- 17:00 Mus txapelketa.
- 19:00 Umeentzako ginkana, Jokatz multi-kirolagaz.
- 20:30 Txixi-burruntzia.
- 21:00 Erromeria, Dj Paco Sanchezegaz.

Abuztuak 24, barikua

- 11:30 Puzgarriak.
- 12:30 Mezea, ermitan.
- Ostea, auzko edadekoentzako omenaldi-kopaua.
- 14:00 Paellak aurkeztea.
- 18:00 Umeentzako tailerrak.
- 19:30 Idi-probak.
- 21:00 Txixi-burruntzia.
- Ostea, erromeria Dj Paco Sanchezegaz.

Abuztuak 25, barikua

(San Fermin arropakaz jantzita)

- 11:30 Puzgarriak.
- 12:30 Mezea, ermitan.

Dj Paco Sánchez



-Sokaira: emakumeak vs. gizonak.

-18:00 Umeentzako tailerrak.

-19:00 Zaldi-probak.

-20:00 Patata tortilla txapelketa.

-21:00 Patata tortilla txapelketearen sariak ematea.

-21:30 Erromeria, Dj Paco Sanchezegaz.

-Amaierako trakea.

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txoriso 4, beheka B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA



Lagatzuk dantzan jarri dau Zamudio

t: Gaizka Eguzkitza / a: Roberto Gómez "Txiki"

Lagatzu Zamudioko euskera alkarteak Lagatzu Eguna – Euskal Jaia ospatu eban. Hamargarren edizioa izan zan ekaineko azken zapatuko hau. Txorierri mailan egi-ten dan euskera eta euskal kultura arloko jairik garrantzitsuenetariko bat da, eta, betiko moduan, euskeraz bizi izatea eta ondo pasatzea aldarrikatzea euki eban helburu.

Ekitaldi nagusia zapatuan izan zan arren, ospakizunak barikuan hasi ziren Broken Izotz musika taldearen eskutik. Hurrengo egunean, Kultura Etxean batu ziran dantzariak, musikariak eta herritarrak. Izan ere, Lagatzukoek omenaldia egin deusie aurten dantzari, eta herri osoa ipini dabe dantzan, erreleboka. Dantzariak dantzagunera sartu eta handik urtetan ziran etenbarik, Banango dantzaren soinu. Guztira 50 musikarik eta 250 lagunek hartu eban parte ekitaldian.

“Oso ekitaldi polita izan zan. Belau-naldi ezberdinetak dantzariak ibili ziran, batzuk alkartekideakaz eta beste batzuk senideakaz... Jente asko etorri zan eta hori oso pozgarria da”, esan deuskue anto-

latzaileek. “Gainera, oso gatxa da musika tresna guztiak behar moduan buztartzea, oso ezberdinak diralako, eta uste dogu lortu egin genduala. Ekitaldian, besteak beste txistulariak, albokariak, trikitilariak, txalapartariak, koralistak eta bertsolariak ibili ziran batera. Dantzaldiari amaierara emoteko, Kaxarranka dantza eskaini zan.

Bestetik, 500 euskaltzaletik gora batu ziran herri bazkarian. Bazkalostea Taberna ibiltariak girotu eban eta bere eskutik, hainbat lagunak jarraitu eban dantzan eta abesten. Tarte horretan Iratxe Gezuragak (Zamudioko Kamara Korala), Josu Aretxabaleak (Bertoko taldea), Ainhoa Bilbaok (Hirubat dantza taldea) eta Jaime Gardokik (Kantarelux taldea) omenaldia egin eutseen Lagatzuko kideei. Lagatzukoek esker ona adierazoteko esan eban “Lauko-te hori gure jaietako motorra da. Itzelezko laguntza eskaintzen deuskue urtero. Igaz geuk egin geuntsien omenaldia eurei, eta aurton, osterara, eurek guri. Oso hunkigarria izan da”.

Ander Lekerikak Ortzi Garitanok idatzitako bertso bat kantatu eutseen Lagatzukoei. Jaia borobiltzeko, erromeria egon zan Trikitio taldeagaz.





Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



2018-19 IKASTURTEA

—Maila guztiak: HABEren A1-A2-B1-B2-C1-C2, EGA...

—Ikasleen beharrianetara egokitutako ikastaroak: gurasoak, merkatariak, mintzamena, perfilak...

—Autoikaskuntza.

—Euskeraz berba egiteko eskolaz kanpoko jarduerak.

Matrikula
zabalik

ERDU GEUGAZ,
EGIZU EUSKERAZ!

NORENTZAT:

16 urtetik gorakoentzat.

ERRITMOAK:

- Astean 10, 7, 6 eta 4 orduko ikastaroak.

- Astean 4, 3 edo 2 egunetan.

- Ikastaro trinkoak eta

Autoikaskuntza (astean behin).

- Urritik ekainera.

MATRIKULA ZABALIK:

Irailaren 3tik 24ra.

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK:

- % 50 edo % 75 eskuragai.

- Txorierrin erroldatuentzat,
langabetuentzat, erretiratuentzat...

BULEGO ORDUAK:

8:30-14:00

16:00-18:30

Mitoak eta mito jausiak



Glenn Hughes

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti



Steve Winwood



BBK Music Legends jaialdiaren hirugarren edizioak XX. mende Erdiko mitoak kontzertuak ekarri dizkigu Txorierrira joan den ekainean, eta desiratuenak Jeff Beck, Glenn Hughes, Steve Winwood, Mavis Staples, John Cale eta Wilko Johnsonen agerpenak.

Siniestro Total taldeak hasiera eman zion jaialdiari 17:00etan, *Bailaré Sobre tu Tumba*, *Ay Dolores* eta *Camino de la Cama* bezalako abesti entzutetsuak eskainiz. Gari & Maldanberak erritmoa aldatu zuen, soinu atmosferiko baten bidez eta argi leunen bidez publikoa itsutuz. Lehen eguneko inflexio puntua ia 80 urteko Mavis Staplesekin ezarri zuen bere gospel estatubatuarrekin ikus-entzuleak maiteminduz. Ondoren, Wilko Johnson, Watt Roy baxu-jolearekin eta Dylan Howe bateriarekin aritu zen deabruak zuzenduriko abiadura handiko, eta askotan batasun gutxiko kontzertuan, zaletu askoren etsipenerako. Itxiera kontzertua Steve Windwoodekin eskaini zuen, lehen minututik aurrera monitoreen soinu-arazoaren biktima izanik. Arazoak konpondu zirenean, aurrera egin zuen Windwoodekin teklatura alde



Ana Popovic



Wilko Johnson



John Cale



Mavis Staples

batera utzita eta gitarrari helduta *Had to Cry* rock-bluesa jotzen. Kontzertua aire-
ratzea lortu zuen Erresuma Batuko artis-
tak, ikuskizun zoragarria eskainiz.

Motxila 21eko neska-mutilek biga-
rren egunari eman zieten hasiera eta
jarraian, euripean, Moonshakers bilbo-
tarrek harrera handiko rock-kontzertua
eskaini zieten euren zaletuei, atera berri
duten *Visitantes* diskoko abestiak jotzen.
Kontzertua bukatu bezain pronto, Dead
Bronco taldeko artistak agertu ziren
oholtzan, abeslariaren osasun-arazoak
zirela-eta kontzertua bertan behera
utziko zutela iragartzera eta barkamena
eskatzera. Ana Popovicen kontzertua
ikaragarria bezain ustekabekoa izan zen:
ohikoa den bezala, Popovic lentejuelaz
betetako soineko labur bat jantzita eta

bere stratocaster gitarrarekin azaldu zen
agertokian, ordubeteko itzelezko rock-
blues kontzertua eskainiz. Artista serbia-
rrak rock-blues-funk-soulez osaturiko me-
nua eskaini zuen, Joe Bonamasa gitarjole
estatubatuarrak egiten dituenak gogora
ekarritz. John Cale teklatu eta gitarren
atzean aritu zen, *Helen of Troy* eta *Fear is
Man's Best Friend* edota soinu elektroniko
industrialeko *Wasteland* bezalako abes-
tiak eskainiz.

Glenn Hughes-ena, *The Voice of Rock*
bezala ezagutzen denarena, jaialdiko kon-
zertu onena izan zen Olara hurbildu ziren
lagun gehienentzat (den-denak Deep
Purple taldeko kamisetak jantzita). Stevie
Wonderren abeslari zuri kutunenak 70eko
hamarkadako banda mitikoaren abesti
entzutetsuenak eskaini zituen hard-rocke-

ko bandarekin batera, *Highway Star*, *Burn
ed* *Smoke on the Water* kondairak soinu
itzel batez berpiztuz, non eta gure hara-
nean. Jaialdia bukatzeko, kontzertu biribi-
la izango zen. Baina ez.

Azken kontzertua Jeff Beckena izan
zen, jausitako mitoarena. Kontzertua hasi
baino lehen, artistak argazkirik ez atera-
tzeko eskaera egin zien, bai publikoari, bai
argazkilari profesionali. Momentu batez,
iazko Van Morrisonen kontzertura itzuli
ginen. Becken kontzertua ordaindu zuten
zaletuek, segurtasuneko langileen meha-
txupean, ezin izan zuten euren artista go-
gokoena hilezkortu, eta medio grafikoek
ezin izan zuten momentu horren berri
eman. Hortaz, eta Londreseko artistaren
begirune falta dela-eta, horra hor Becken
kontzertua.

94 190 1234 LEZAMA Bilboan Gaitortzeak auzoa, 30

S.A.T. LEKU
BIZIKALDEKIN ETXEA BILBO-LEZAMA

F.: 94 455 64 12 T.: 94 455 61 98

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Dendaketa eta abar

Gaitortze auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

10. URTERENA

BOLALEKU
JATETXEA

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Gaitortze, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jardutxo Facebook



**berba
Lasun**

telefonoa:
63575 35 95

e-maila:
txorierri.berbalaguna@gmail.com

antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Ikasturtea irudietan



Gogotsu bezain berritsu ibili gara 2017-2018ko ikasturtean. Euskaraz. Izan ere, euskaldun zaharrok, berriok eta ikasten ari direnak hainbat aldiz batu gara euskaraz aritzeko eta hezkuntza hobetzeko. Gainera, ekitaldi sorta zabala antolatu dugu hilabete hauetan. Horrela, bada, eta adibide banaka batzuk ipintzearen, Bruce Davidson argazkilariairene lana ezagutzeko aukera izan dugu, bisitan ibili gara Laguardiako upategi batean, Getxophoton murgildu gara, zientzia museoa bisitatu dugu, perretxikotara joan gara eta bira eman diogu Txorierri.

Gurasolagunok ere gogotsu ekin diogu ikasturteari eta seme-alabekin batera euskaraz jolasteaz gainera, ekintza interesgarriak ere egin ditugu, hala nola dragoi eta maskara tailerrak, eta askari osasuntsua nola prestatu.

Udan indarrak berritu ostean, gogotsuago eta berritsuago helduko diogu 2018-2019ko ikasturteari. Horretarako, milaka era topatuko dugu euskaraz ezagutzeko, ikusteko, entzuteko, disfrutatze-ko eta olgatzeko. Bitartean, irudietan batu ditugu joan berri den ikasturtearen momentuetariko batzuk.



Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92

www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean
Auzokoen konzentrazioak
Mantentzeko garbi-ikatzak
Bulgarak eta lokalak
Oliniko enbriak garbitzeko
Bazterrak
Zabaz bilketak

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldeakone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

t: Itxaaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Asier Vicario abeslariak eta Rober Melid gitarra-joleak emon deuskue Kartzarot taldearen azken lanaren barri. "Chromaticity estudioetan grabatzen gabiltz, Asuan. Eskari handia dauen estudioa da, batez be heavy egiten dogun taldeen artean. Izan be, hangoak asko laguntzen deustu grabazinoagaz, eta konposizinoak be hobetzen deutsuz. Grabazinoak orain dala gitxi amaitu dogu eta nahasketak falta jakuz". Diskoa irailean-edo kalean egotea espero dabe. "Ekoizpena gurea da oso-osorik, eta dan-dana gure artean adosten dogunez, ba, horrek pilo bat atzeratzen gaitu".

Izpiritu asanbleario horren ondorioz, oraindino ez dabe erabagi zein izango dan euren hirugarren diskoaren izena. Halanda be, idearen bat badarabile bu-ruan eta portadaren behin betiko diseinuak erabagiko dau lanari izen hori edo besteren bat ipiniko deutsien. "Diskoa sei abestik eta, 80ko hamarkadan egiten zan moduan, *bonus track* batek osatzen dabe. *Bonus track* hori keinua da gudan hain eragin handia euki dauen hamarkadeari". Aurreko lanean egin eben moduan, diskoa bozgorailutzat erabili gura dabe, kezkatzen dabezan gaiak salatzeke. Honela, euren hizkiek ingurumenaren gainean egiten dabe berba, alzheimeraren gainean, lan baldintzen gainean eta sexu-erasoen gainean. Athletici eskainitako abestia be badago, eta omenaldi txiki bat Lezamari. "Leloak dinoan moduan, hainbeste zor deutsadan herriari", zehaztu dau Asierrek.

Taldeakide biek azaldu daben moduan, disko hau aurrekoa baino heavyagoa da. "Heavy metal landuago, sakonago, koherenteago eta, beharbada, ulertzeko zailago baten murgildu gara lan honetan". Gainera, heavy metal taldeen artean ohikoa ez dan euskal instrumentu baten soinua entzungo da *Lezama* abestian: trikitia. Ekarpina Gaizka Peñafielek egin dau.

*"Heavy metal landuago,
sakonago eta
koherenteago
baten murgildu
gara lan honetan"*



Kartzaroten lan barria laster egongo da kalean

Heavy metal taldearen kideak estudioan dabilz euren hirugarren diskoari azken ikutuak emoten. Oraindino diskoaren izena erabagi ez badabe be, aurreratu deuskue sei abestik eta *bonus track* batek osatzen dabela. Gainera, trikitiaren soinua be entzungai egongo da abesti baten. Ezkontza bitxia, duda barik.

"Abestiari emongo deutsan plusa duda gabekoa da. Pozik baizen harro gagoz emaitzagaz eta ziur gagoz gustauko dan sorpresea izango dana". Bestetik, A.O.R estilo amerikarrarekin be ausartu dira *Train* abestian, "oso melodikoa da; inoz jo ez dogun erara".

Dimetal

Diskoaren aurkezpen ofiziala Lezaman egitea gustauko litxakiela esan dabe. Baina diskoa kalean egon arte ezin dabe datarik ipini. "Esan geinke irailaren 28an Dimetal Festibalean, Diman, joko dogula. Oso jaialdi berezia izango da, bertan 30 talde arituko garelako". Aurreko lanak, *Arima ez da galtzen*, oso harrera

ona euki eban eta oso kritika onak jaso ebazan komunikabide espezializatuetan. "Hori errepikatzea ez da erraza izango". Halanda be, musikariek esan deuskue hareek aspaldidanik ez dabela harrera handirik itxaroten. "Berrogeita hamar urte inguruko lagunak gara eta hau egiten dogu, sortzea izugarri gustatzen jakulako eta ezin garelako geldirik egon. Eta gainera, emaitza asko gustatzen jakulako".

Kartzarot taldea 1989an sortu zan eta 10 urte beranduago bere taldekideak banandu egin ziran. 2013an barriro alkartu ziran eta esku artean daben disko honez gainera, beste lan bi dabez kaleratuta: *galtzen* (2015).

Oraingo turistak eta lehengo konbidaduak

t: Juan Luis Goikoetxea

Turismoa atsegin hartzeko bidaiatzea dala dino Euskaltzaindiak. Konbidatzea, barriz, -dakar ADOREZ hiztegiak- pertsona bati janaldi edo ekitaldi batera -jaietara- etor dadin dei edo erregu egitea.

Antxinako Egipton ez jakon etorri be egiten burutara inori Babiloniara turismo egiten joatea. Eta hain asagora jo barik, orain 50 urte hemen berton konbidadu joaten ginan aitita-amamen baserrira jaietan. Edozelan be, sasoi haretan ez zan igartzen "turismitis" giroa.

Gaur eguneko herritarrek sinistu egiten dau kontsumismoaren mitoan, kontsumismoak dakarren zoriontasunean. Horrexegaitik gastatzen dau hainbeste diru oporretan. Uste da, pertsonaren izaera aberasteko onena dala eguneroko errutina albo batera laga eta urruneko lurraldeetara bidaiatzea, beste usain-zapore batzuk dastatzeko nahiz kulturak ezagutzeko. Azken baten, turismoko industria modernoa horrexetan oinarritzen da, esperientzien merkatuan.

Ostera, jaietako konbidadutza -orain 50 urtekoa- bihotzean gordetzen dan esperientzia da. Zelan ahaztu leikez Mirenek Loiuko San Pedroetarako erropa barrituak eta sandaliak, edo amamarenean

lehengusu-lehengusinak lo geratzea? Zelan Terek San Migeletan, Ereñon, -ia beti euritan- aitabitxik asto txiki-txikitxu baten gainean erabiltzea? Zelan Pilarek neba-arreba piloa asto-otzaretan-eta amamarenera joatea? Nola Lolik Larragoitin irailako Andra Marietan ardi-odolosteak

jatea edo Ajangizen Agustinek kremazko tostada puntiladunak? Zelan Matxalenek Andramarietan eta San Rokeetan Arrazolarra joatea? Egia esan, norberaren etxetik beste auzo edo herri bateko baserrira joatea aldaketa handia zan, ze han beste miniklima bat arnasten zan, hizkerak berak be barianteak zituan-eta: euria, eurie, eurixe...

Jakina, konbidadu joatea ez zan esperientzien merkatua; bai, ostera, alzheimerrek ezin ezabatu dituan bizipen kuttunen.



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Gela, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

t o k t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

LEZAMAKO BATZOKIAK

GARAIOLTZA AUZOAN 1208
946561719
batzokilezama@gmail.com

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Krimasajea

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Txoniem elorbideta, 9 - Lorja | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 637 79 54 45
info@dentizainduz.com | www.dentizainduz.com

Etxeko sukaldaritza



Marmitakoa

t: Maite Lekerika / a: unareceta.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bat patata (zurituak eta txikituak)
- Kipula handi bat (txikitua)
- Piper berde bat (txikitua)
- Piper gorri zati bat (100 g)
- Hiru piper txorizero (mamia)
- Tomate heldu bat (garbitua eta txikitua)
- Oliba-orio zurrusta bat
- Gatza
- 800 g hegaluze (Kendutako azala eta hezurak, saldea egiteko)
- Pipermin pikantea (aukeran)

Prestetako area:

Orio-zurrusta bat botako dogu eltze batera eta han kipulea eta pipermina erregosiko doguz su ezitan. Biguntzen diranean, piper gorria, piper berdea eta tomate gehituko doguz. Eginda dagozanean, piper txorizeroak, patata txikituak eta gatza gehituko doguz. Saltsea 3-5 minutuan eragingo dogu. Ondoren saldea, edo ura, botako dogu eta su ezitan 20 minutu inguru eukiko dogu. Eginda dagoanean hegaluzea sartuko dogu, ddotan ebagita, eta eltzeari estalkia jarriko deusagu. Minutu bitan eukiko dogu egosten.

Mango-pastel izoztua

Osagaiak:

- Maria gaileta pakete bat
- Gurina (urtua)
- Koilarakada bi azukre
- Esne kondentsatu-poto bat
- 100 g igurzteko gaztai
- Gelatina sobre bat (zapore bakoa)
- Mango bi

Prestetako area:

Gailetak txikituko doguz eta azukreagaz nahastuko doguz. Gurin urtua gehituko dogu eta dana nahasiko dogu, harik eta ore bat egiten dan arte. Orea molde baten zabalduko dogu. Esne kondentsatua, igurzteko gaztaia eta mangoak irabiagailuaz nahastuko doguz. Gelatinea hidrata-tuko dogu eta berotu egingo dogu, urtzen dan arte. Gelatinari lau koilarakada mango-prestakin botako deusaguz ha ezititzeko. Ondoren, gelatina ezitua mango-prestakinari gehituko deusagu. Prestakina orearen gainean zabalduko dogu eta hozkailuan eukiko dogu, harik eta mamitzen dan arte.



a: cocinadelirante.com

ERREKA
JAT
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Jatetxea **SAN ISIDRO**

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 13

Mungialde etorridua, 25
48160 DERIO

TXINBO KALEA, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

RADIO TAXI FEMADE Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Carrefour express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatcan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Umeen txokoa: 7 desberdintasunak

Ezetz 7 desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: es.hello-kids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Hondar aleak* (Erein), Rafa Ugalde.
- Epailea eta haren berreroa* (Erein), Friedrich Dürrenmatt.
- Zaldi beltzak zeruan* (Pamiela), Txomin Peillen.
- Lurraldea eta herria* (Pamiela), Eneko Bidegain.
- Keinu konplizeak* (Susa), Karlos Cid Abasolo.
- Errukiaren saria* (Erein), Iñaki Irazu.
- Duchampen inguma* (Pamiela), Eric Dicharry.

LITERATURA: GAZTEAK

- Zomoroen kluba oporretara doa* (Erein), Laida Martinez Navarro.
- Malen labirinto madarikatuan* (Erein), Joxerra Garzia.
- Eskola hodeian* (Erein), Nerea Arrien, Estibalitz Jalón (il.).
- Elmer eta ostadarra* (Erein), David McKee.

Sudokua

8	9	5				4		
	2				5			6
							3	7
				8			2	3
		8	2			6		
			6		4	7		
	5			3				
			7	4		2		
		6						

8	7	3	6	5	1	9	4	2
6	5	2	9	4	7	3	8	1
4	9	1	2	3	8	6	5	7
1	8	7	4	6	9	2	3	5
5	4	9	3	7	2	8	1	6
3	2	6	1	8	5	4	7	9
7	3	5	8	2	6	1	9	4
9	6	8	5	1	4	7	2	3
2	1	4	7	9	3	5	6	8



Erakusketak

Sondika

- > VII. Balkoi apainduen lehiaketa. Irailaren 10etik 27ra, liburutegian.

Ikastaroak

Sondika

- > Udal ikastaroetan eta tailerretan izena ematea: irailaren 3tik 11ra, liburutegian.

Zamudio

- > Zen meditazioa. Izena ematea: irailaren 13a baino lehen, udaletxean.
- > Udal ikastaroetan izena ematea: irailaren 14ra arte.
- > Elikadura kontziente tailerra, emakumei zuzenduta. Irailaren 22an eta 29an, 10:30ean, Zamudiotarren

Irteerak

Sondika

- > Koltza mendia. Irailaren 23an, 09:00etan. Izena ematea eta informazioa: irailaren 19ra arte, liburutegian.

Koltza mendia.
a: wikipedia



a: Zamudio Orain

Zamudio – Zamudio zikloturista (XXX. Urteurrena)

Irailaren 15ean, Bidekoetxe parkean

- 09:30-11:00 Txartelak eta kamisetak banatzea.
- 12:00 Mahaiak gordetzea karpan.
- 12:30 Umeentzako mountain-bike zirkuitua.
- 13:30 Ogitar-tekoak banatzea.
- 14:00 Bazkaria.
- 16:00 Erromeria.

Izena emateko azken eguna: irailaren 14a, udaletxean. Hamazortzi urtetik beherako erroldatuak: 2 euro; 18 urtetik gorako erroldatuak, 3 euro; gainerakoak: 5 euro. Prezioaren barruan txartel 2 sartzen dira: kamisetari dagokiona, eta edariari eta ogitar-tekoari dagokiena.

Zamudio

- > Larrasa (upategia). Irailaren 9an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Europako mendiak. Irailaren 21etik 23ra,
- > Arroeta mendi taldeak antolatua. Larrun. Irailaren 22an, Lagunandre elkar-teak antolatua.

Jaiak

Sondika

- > Kurtze. Irailaren 14tik 16ra.

Zamudio

- > San Migel. Irailaren 29an.

Txapelketak

Sondika

- > Marmitako lehiaketa. Irailaren 15ean. Izena ematea: irailaren 3tik 7ra, liburutegian. Informazioa: liburutegian, www.sondika.eus webgunean eta Sondika Zabaltzen aplikazioan.

Zamudio

- > Bertso-rally erronka. Irailaren 8an, Kotzozulo aparkalekuan, Kultura Etxean eta frontoian. Zamudio Racing elkarteak antolatuta.

Bestelakoak

Zamudio

- > Umeentzako ipuin saioa. Irailaren 22an, 11:30ean, liburutegian.
- > Berdintasun Plana aurkeztea. Irailaren 28an, 19:00etan, Zamudiotarren.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburumbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltzerotza orokorra

Especializatea:
Xalfo-lanak
Zoruak

944522910 - 985703312 - 652772016

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitz doktores, 11. - 1. edk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Ne-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorienko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin




ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

bertoko

musika tresnak eta kultura



Informazioa:



689 24 68 44



bertokozamudio@gmail.com



<https://www.facebook.com/bertokozamudio.soinutresnenelkarte>

<http://www.aikor.com/txokoa/bertoko/>

